

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Kulturak Juan Antxieta eskultoreak Errenazimentuan egindako figura eta erretaulai buruzko gida didaktikoa aurkeztu du

*Erretaulak kokatuta dauden Añorbe, Agoitz, Caseda eta Tafalla herrietako Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendutako material didaktikoa da*

Astelehena, 2018.eko ekainak 11

Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak, Añorbe, Agoitz, Caseda eta Tafallako udalen lankidetzaz, "Juan Antxieta, erretaulak Nafarroan" izenburuko gida aurkeztu du. Lehen Hezkuntzarako taxutu den material didaktiko hau Antxieta Añorben, Agoitzen, Casedan eta Tafallan landutako erretaulatan inspiratu da.



Actividad organizada por el Ayuntamiento de

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzendutako ekimen honen bitartez, bertako ondare artistikoaren zati handi bat bultzatu nahi da: artistak herri horietan egindako erretaulak. [Gaztelaniaz](#) eta [euskaraz](#) argitaratutako gida hau interaktiboa, erabilerraza eta arras bisuala da, eta eduki praktikoekin batera, hainbat alorri dagozkien jarduerak ere eskaintzen ditu: artea, idazketa, hausnarketa eta eztabaida, matematika, etab.

Bestela esanda, gida honen bitartez, hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi dira arteari buruz eta kultura ondarearen ezagutzak eta transmisioak duten garrantziari buruz.

Gida hau, lau herrietako udalek 2017an abiatutako proiektu bati lotuta sortu da, izan ere, orduko hartan, erretaula bakoitzari buruzko azalpenak biltzen zituzten ele bitako 4.000 foileto argitaratu eta bisita gidatuak antolatu zituzten, euskaraz eta gaztelaniaz.

Gida aurkezteko ekitaldian izan dira Carlos Martinez, Ondare Historikoaren Zerbitzuko zuzendaria; Unai Lako, Agoizko alkatea, eta Kati Leatxe, gida lantzeaz arduratu den Karekin Kultura enpresaren arduraduna.

